



Ahizpa
Ospitalariak
AITA MENNI

125 URTEKO OSPITALITATEA
AÑOS DE HOSPITALIDAD



SANTA AGEDAKO | 1898 | CASA DE SALUD DE
OSASUN ETXEA | 2023 | SANTA ÁGUEDA

Zurekin batera

URTEKO TXOSTENA

2023

125. URTEURRENA



Ahizpa Ospitalariak - Aita Menni, 2023

www.aita-menni.org

hospital.aitamenni@hospitalarias.es

Diseinua eta maketazioa:

Erremedia Comunicación Global

01	AURKEZPENA	7
02	NOR GAREN	8
03	GURE ASISTENTZIA-DATUAK	16
04	IRAUNKORTASUNAREKIKO KONPROMISOA	18
05	GOBERNU ONAREKIKO KONPROMISOA	24
06	ARTATZEN DITUGUN PERTSONEKIKO KONPROMISOA	28
07	GURE LANGILEEKIKO KONPROMISOA	40
08	GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA	44

Erizaina baino gehiago da: laguna da.
Gaixoa baino gehiago da: gizakia da.
Arreta medikua baino gehiago da: arreta pertsonala da.
Ongizate fisikoa baino gehiago da: ongizate osoa da.
Tratamendua ematea baino gehiago da: babeseta eta
maitasuna ematea da.
Osasuna baino gehiago da: justizia da.
Iragana baino gehiago da: etorkizuna da.

Aita Menni.

Ospitale bat baino gehiago da: Hospitalitatea da.

125 URTEKO HOSPITALITATEA



...haiek beharbada inoiz amestu ez zituzten garapena eta proportzioak lortu dituen erakunde bati bizia emanez.

“Relación sobre los orígenes”,
Maria Angustias Gimenez, 1887.

1898ko ekainaren 1ean, Aita Benito Mennik Santa Agedako Osasun Etxea sortu zuen. Harrezkero, gaur egunera arte, Aita Menni saiatu da Misio Ospitalarioari jarraipena ematen, baztertuta dauden pertsonak artatuz, gaixotasun mentalaren estigmaten aurka borrokatuz, eta betiere XIX, XX eta XXI. mendeetan zehar agertu diren osasun eta gizarte eskaera berriei erantzunez.

“Zurekin batera” lelopean, 2023ko ekainaren 1ean oroitzapenezko hainbat ekitaldi, argitalpen eta ikus-entzunezko material prestatu genituen, Hospitalitatearen balioa nabarmentzeko, zuri-bel-tzean hasi zen eta Komunitate Ospitalarioa osatzen duten guztiek koloreztatu duten istorio honen ardatz nagusi gisa: pazienteak eta erabiltzaileak, familiak, ahizpak, laguntzaileak, administrazioak eta enpresak.

Urte berezi honetan, lehenik eta behin, denboran zehar bidaia honetan gurekin egon diren eta jada gure ondoan ez dauden hainbat pertsona gogoratu nahi ditugu: horiei guztiei, gure oroitzapenik sentituena.


Gure esker ona, miresmena eta errekonozimendua kolaboratzaileek egiten duten lanagatik, Misio Ospitalarioaren motorra eta gizarteak eskatzen dituen etengabeko erronkei aurre egiteko beharrezko dinamizatzaileak baitira.

Komunitate Ospitalarioko kide izatearen harrotasunak, aurkezpen honen buruan Maria Angustias Gimenez fundatzailearen bizitzari buruzko liburutik ateratakoa oharrean aipatutako bilakaeran islatzen den bezala, misioaren parte garen pertsona guztien erantzukizunari eta konpromisoari dei egiten die behar duten pertsona guztiei arreta eta osasuna emateko.

Gure erakunde ospitalarioaren nortasun horrek, gure autonomia erkidegoko osasun eta gizarte agintariekin batera lan eginez, aukera ematen digu pertsona ahulak eta mendekoak zaintzen dituen gizarte bateko kide izateko, komunitatearen duintasuna, autonomia eta berrintegrazioa berreskuratzeke.

Sor Isabel Martínez
Ama Gorena

Mikel Tellaeche
Zuzendari Gerentea





AITA MENNI

Aita Menni irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da. **San Benito Mennik** 1898an sortu zuen, Santa Agedako bainuetxe ohiaren azpiegituretan. Bainuetxea Arrasateko Gesalibar auzoan zegoen.

Haren jabeak **Ahizpa Ospitalariak** dira. Ehun urte baino gehiagoko historian, Aita Menniren eginkizuna hauxe izan da: buruz gaixorik daudenei, desgaitu fisikoei eta desgaitu psikikoei arreta-zerbitzua eta osasun-zaintza integrala eskaintzea. Horrez gain, laguntza hori beste patologia batzuk dituztenei eta behartsuenei ere eskaintzen die.

Arreta psikiatrikoa emateaz gain, Aita Menni Ahizpa Ospitalariak arlo hauetan egiten du lan: adimen-urritasuna eta autismoaren espe-

troaren nahasteak dituzten pertsoneri ematen zaien laguntzan, hartutako kalte zerebrala duten pertsonen errehabilitazioan, adinekoen arretan eta eremu soziosanitarioan.

Ahizpa Ospitalarien kongregazioa XIX. mendearen amaieran sortu zen Madrilén. Aita Benito Mennik sortu zuen. Benito Menni 1999an kanonizatu zuten. Kongregazioa garai hartan osasunaren arloko gaixotasunak zituzten eta behar bezalako osasun-laguntza jaso ez zuten emakumeak zaintzeko xedez sortu zen.

BALIOAK

Ahizpa Ospitalarioen nortasunaren ezaugarri bereizgarri eta funtsezko elementu dira. Arduradunen erabakiak gidatzen dituzte eta erakundea osatzen duten guztien jarduera esparrua ezartzen dute egunerokoan.

ABEGIKORTASUNA

Gure misioaren hartzaileei eremua eta denbora, arreta eta zainketa, gizatasuna eta baliabideak eskaintzea da.

Balio hori laburtzeko, zortzi balioetan garatuko dugu:

MISIOA

Laguntza eta zaintza espezializatua eta lehentasunezkoa gaixotasun mentala, desgaitasun psikikoa eta fisikoa eta beste gaixotasun batzuk dituzten pertsonentzat, denbora eta leku bakoitzean dauden beharrak eta premiak kontuan hartuta, behartsuenei eta baztertuen daudenei lehentasuna emanez.

- Baztertuta daudenekiko sentikortasuna
- Zerbitzua gaixoei eta behartsuei
- Harrera askatzailea
- Osasun integrala
- Kalitate profesionala
- Gizatasuna arretan
- Etika jarduera bakoitzean
- Kontzientzia historikoa

OSPITALARIAK MUNDUAN

83 ZENTRO

25 HERRIALDE AFRIKA, ASIA, EUROPA
ETA LATINOAMERIKAN

1.000 AHIZPA

17.300 PLAZA SANITARIO ETA
SOZIAL

820.000 ARTATUTAKO PERTSONA URTERO

11.780 PROFESIONAL



ESPAINIAKO PROBINTZIA KANONIKOA

21 zentro asistentzial

115 eguneko zentro

2 ospitale orokor

2 tutoretza fundazio

1 ikerketan espezializatutako fundazioa

7.000 profesional

800 boluntarioa

209.721 artatutako pertsona

4.366 Psikiatriako ohe eta plaza

3.361 Psikogeriatriako ohe

2.344 Desgaitasun Intelektualeko plaza

258 Ospitale Orokorreko ohe

189 Kalte Zerebraleko ohe eta plaza

84 Zainketa Aringarrietako ohe

6 LERRO ASISTENTZIAL

- Osasun mentala
- Adineko pertsonak
- Kalte zerebrala
- Desgaitasun intelektual
- Zainketa aringarriak
- Ospitale orokorra

22 ARRETA ZENTRO

GIPUZKOA

ARRASATE

- **AITA MENNI OSPITALEA** / Osasun Mentala, Adineko Pertsona, Kalte Zerebrala, Desgaitasun Intelektuala
- **MUSAKOLA ZENTROA** / Adineko Pertsona, Kalte Zerebrala
- **URIBE EGUNEKO OSPITALEA** / Osasun Mentala
- **ERGÜIN ERREHABILITAZIO PSIKOSOSIALEKO ZENTROA** / Osasun Mentala

EIBAR

- **EGOITZA UNITATE SOZIOSANITARIOA**

BEASAIN

- **EZKIAGA ERREHABILITAZIO PSIKOSOSIALEKO ZENTROA** / Osasun Mentala

BERGARA

- **BERGARAKO EGUNEKO ZENTROA** / Adineko Pertsona

DONOSTIA

- **MALDATXO ERREHABILITAZIO PSIKOSOSIALEKO ZENTROA** / Osasun Mentala
- **ZUATZU EGUNEKO ZENTROA** / Kalte Zerebrala
- **ZUBI ETXE** / Desgaitasun Intelektuala

IRUN

- **ANTZARAN ERREHABILITAZIO PSIKOSOSIALEKO ZENTROA** / Osasun Mentala

OÑATI

- **SAN MARTÍN EGOITZA** / Adineko Pertsona
- **SAN MARTÍN EGUNEKO ZENTROA** / Adineko Pertsonak

BIZKAIA

BILBO

- **TXURDINAGABARRI EGOITZA** / Adineko Pertsona
- **TXURDINAGABARRI EGUNEKO ZENTROA** / Adineko Pertsona
- **EGAÑA ZENTROA** / Kalte Zerebrala

DURANGO

- **JM BARANDIARAN EGOITZA** / Adinekoa Pertsona
- **JM BARANDIARAN EGUNEKO ZENTROA** / Adineko Pertsona

OROZKO

- **JESÚS - MARIA EGOITZA** / Desgaitasun Intelektuala

ETXETEK

DONOSTIA

- **BULEGOAK, ERAKUSKETA ETA BILTEGIA**

EIBAR

- **ERAKUSKETA ETA BILTEGIA**

ARRASATE,

- **ERAKUSKETA**

BIDEOA

GURE ZENTROAK



AHOLKULARITZA ETA KANPO KONTSULTAK 21 LEKUETAN

GIPUZKOA

HONDARRIBIA

- **ULIAZPI. ZUBIETA ZENTROA** / D. Intelektuala

DONOSTIA

- **IZA ZENTROA** / Osasun Mentala
- **GAINBEGIRATUTAKO PISUA** / Osasun Mentala
- **ULIAZPI. DONOSTIA ZENTROA** / D. Intelektuala
- **ULIAZPI. ATEGORRIETA ZENTROA** / D. Intelektuala

OIARTZUN

- **ERTZAINZA** / Osasun Mentala

ZIZURKIL

- **ULIAZPI. FRAISORO ZENTROA** / Desg. Intelektuala

ZUMARRAGA

- **IBAIONDO HEZK. ZENTROA** / Osasun Mentala

BIZKAIA

BILBO

- **IFAS. BEKOETXE ZENTROA** / Kalte Zerebrala
- **IFAS. LOIU - UDALOSTE ZENTROA** / D. Intelektuala

ELORRIO

- **IFAS. ZUMELEGI ZENTROA** / D. Intelektual

ERANDIO

- **ERTZAINZA** / Osasun Mentala

DERIO

- **ERREKALDE EGUNEKO ZENTROA** / Osasun Mentala

GORDEXOLA

- **ZUBIETE EGUNEKO ZENTROA** / Osasun Mentala

MUNDAKA

- **IFAS. MUNDAKA ZENTROA** / D. Intelektual

URDUÑA

- **GABRIEL M^a IBARRA EGUNEKO ZENTROA** / D. Intelektuala

ZALLA

- **LUSA ZENTROA** / Desgaitasun Intelektuala

ARABA

ARKAUTE

- **ERTZAINZA** / Osasun Mentala

GASTEIZ

- **VITHAS SAN JOSE OSPITALEA** / Osasun Mentala

ANDOIU

- **ANDOIU-GORBEIA HEZK. ZENTROA** / O. Mentala

APODAKA

- **APODAKA HEZK. ZENTROA** / Osasun Mentala



Ahizpa
Ospitalariak
AITA MENNI

125

URTEKO OSPITALITATEA
AÑOS DE HOSPITALIDAD



SANTA AGEDAKO
OSASUN ETXEA

1898
2023

CASA DE SALUD DE
SANTA ÁGUEDA

Zurekin batera

1898-2023: 125 URTE BETE DITUGU

1898ko ekainaren 1ean, gaixotasun mentala zuten 50 laguni –25 gizon eta 25 emakume– Santa Agedako bainuetxe erosi berrian harrera eginda, **Aita Benito Mennik** Euskadiko asistentzia psikiatrikoko lehen zentroa ireki zuen, Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen eta Arrasateko San Juan den Dios ospitalearen jatorria.

2023ko ekainaren 1eko arratsaldean, Arrasateko Santa Ageda osasun etxea sortu eta 125 urtera, Donostiako Miramar jauregian zorioneko gertaera hura ospatzeko programaren inaugurazio ekitaldiari ekin genion.

Ekitaldian izan ziren eta parte hartu zuten sor **Esther Berruetek**, Ahizpa Ospitalarioetako gure lehen kontseilari nagusiak, eta anaia **Joaquim Errak**, San Juan de Dioseko kontseilari nagusiak, baita Donostiako alkate **Eneko Goiak** eta Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu **Gotzone Sagarduik** ere.

Bertan izan ziren, halaber, gure ama goren sor **Isabel Martinez**, **Mikel Tellaeche** zuzendari kudeatzailea, eta gure profesionalen ordezkaritza handi bat ere.

Francisco Benavidesek, Granadako San Juan de Dios artxibo-museoko zuzendariak, xehetasunez hitz egin zigun Santa Agedako Osasun Etxearen historiari buruz, Miramar jauregiko areto eta terrazan aperitibo bat eman aurretik.





EKAINA

HOSPITALITATEAREN KONTZERTU HANDIA

Ekainaren 16an, Donostiako Easo Gazte, Bilboko Korral Elkarteko Euskeria eta Gasteizko Nurat Gazte abesbatzek bi piano eta perkusiorako 'Carmina Burana' bikaina interpretatu zuten Kurasaalean, **Alberto Saez Puentek** zuzenduta.

1.800 lagun baino gehiago joan ziren, eta Arrasateko Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleek 125 urteko bizitzan hartu dituzten 30.000 pertsona baino gehiago gogoratu zituzten.

Horiek guztiak ordezkaturaz, **Yolanda Egañak** eta **Bittor Zubelzuk** hartu zuten hitza ekitaldiaren amaieran, jasotako arreta eskertzeko eta "bizitzen ikasi daitekeela" erakusteko lekukotza emateko.





EKAINA

“ARRETA PSIKIATRIKOAREN ORAINA ETA ETORKIZUNA” JARDUNALDIA

Ekainaren 23an, arreta psikiatrikoaren orainari eta etorkizunari buruzko topaketa bat egin zen Donostiako Aquariumean, espezialista ezagunen parte hartzearekin.

Asistentzia ereduak, arreta psikiatrikoaren izaera medikoa edo osasun mentaleko ikerketan egindako aurrerapenak izan ziren jorratutako gaietako batzuk.

URRIA

PAZIENTEAK OSASUN MENTALAREN AUTOZAINKETAN PARTE HARTZEARI BURUZKO JARDUNALDIA

Urrian, Osasun Mentalaren Eguna zela eta, beste topaketa bat egin zen, eta erizain taldeek osasun mentaleko arazoak dituzten pazienteen autozainketaren sustapenean duten zeregina aztertu zen.

Jardunaldian praktika oneko kasuak azaldu ziren, eta etorkizunean osasun mentalean espezializatuko diren erizaintzako profesionalak aurkeztu beharko duten profila zein izango den eztabaidatu zen.

“NIRE MUNDU PARALELOA”, DOKUMENTALA

Gure 125. urteurrena ospatzeko, Aita Menni Ahizpa Ospitalarioek “Nire mundu paraleloa” ekoitzi zuen, gure zentroen egunerokotasuna jasotzen duen dokumentala, familia ospitalarioa osatzen duten zenbait pertsonaren begiraden eta hitzen bidez.



ESKANEATU ETA
DESKARGATU



AITA MENNI

AITA MENNI OSPITALEA + AITA MENNI GIZARTE ZERBITZUAK

22 zentro eta dispositibo asistentzial, propioak edo esleipen publikoarekin kudeatuta.

21 zentro eta dispositibo, **Aita Mennik** aholkularitza espezializatuko zerbitzuak egiteko edo kanpo kontsultak kudeatzeko.

4 LERRO ASISTENTZIAL

-  Osasun Mentala
-  Adineko Pertsona
-  Kalte Zerebrala
-  Desgaitasun Intelektuala

ZERBITZU 1

-  Etxetek Programa Gipuzkoako Foru Aldundia

Aita Menni Ospitalea (AMO)

9 zentro eta dispositibo asistentzial, propioak edo esleipen publikoarekin kudeatuta.

21 zentro eta dispositibo, **Aita Mennik** aholkularitza espezializatuko zerbitzuak egiteko edo kanpo kontsultak kudeatzeko.

4 LERRO ASISTENTZIAL

-  Osasun Mentala
-  Adineko Pertsona
-  Kalte Zerebrala
-  Desgaitasun Intelektuala

Aita Menni Gizarte Zerbitzuak (AMGZ)


11 zentro eta dispositibo asistentzial, propioak edo esleipen publikoarekin kudeatuta.

Etxetek


2 bulego publikoaren arretarako eta

2 Etxetek **biltegi**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Laguntza Teknikoen Informazio eta Baloraziorako Zentroa, esleipen publikoarekin kudeatuta.

2 LERRO ASISTENTZIAL

-  Adineko Pertsona
-  Kalte Zerebrala

ZERBITZU 1

-  Etxetek Programa Gipuzkoako Foru Aldundia

Egoitza Unitate Soziosanitarioa Eibarko Ospitalea

Arreta zentro 1 esleipen publikoarekin kudeatuta.

Gipuzkoako mendeko pertsonak zaintzea

	2019	2020	2021	2022	2023
Ospitaleko egonaldiak	313.565	304.552	294.035	314.143	325.661
Oheak	853	906	906	935	938
Osasun Mentala	181	185	238	260	262
Adineko Pertsona	566	612	564	566	566
Desgaitasun Intelektuala	70	73	68	73	74
Kalte Zerebrala	36	36	36	36	36
Eguneko zentroetako asistentziak	104.241	94.885	94.491	91.020	
Plazak	506	516	508	461	494
Osasun Mentala	108	108	108	108	108
Adineko Pertsona	344	354	344	295	316
Kalte Zerebrala	54	54	56	58	70
Kanpo kontsultak	42.282	28.869	34.992	37.111	36.901

Ospitaleko egonaldiak	150.730	155.918	152.443	166.250	173.941
Oheak	429	482	482	511	514
Osasun Mentala	181	185	238	260	262
Adineko Pertsona	142	188	140	142	142
Desgaitasun Intelektuala	70	73	68	73	74
Kalte Zerebrala	36	36	36	36	36
Eguneko zentroetako asistentziak	54.147	52.915	54.353	50.845	40.429
Plazak	242	242	244	231	148
Osasun Mentala	108	108	108	108	108
Adineko Pertsona	80	80	80	65	0
Kalte Zerebrala	54	54	56	58	40
Kanpo kontsultak	42.282	28.869	34.992	37.111	36.901

Ospitaleko egonaldiak	162.835	148.634	141.592	147.893	151.720
Oheak - Adineko Pertsona	424	424	424	424	424
Eguneko zentroetako asistentziak	50.094	41.970	40.138	40.175	47.385
Adineko Pertsona	264	274	264	230	316
Kalte Zerebrala	0	0	0	0	30

Kudeatutako eskaerak	4.250	3.930	4.382	4.716	5.311
Lagundutako etxeak	5.129	5.283	5.410	5.650	6.078

Covid Unitateko egonaldiak				3.211	0
Unitate Soziosanitarioko egonaldiak				1.307	16.279

04 IRAUNKORTASUNAREKIKO KONPROMISOA



Ahizpa
Ospitalariak
AITA MENNEN



GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK BETETZEKO EKARPENA



Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek (GJH) eta horiek hedatzen dituzten 169 helburuek bide orri bat markatzen dute gizarteko eragile guztientzat: gobernuak eta erakunde publikoak, enpresa pribatuak, GKEak, erakunde akademikoak eta herritarrak, besteak beste. Egungo gizarte, ingurumen eta ekonomiaren arloko erronka nagusiak hartzen dituzte: oinarrizko zerbitzuetara iristeko desberdintasuna (hezkuntza, osasuna, edateko ura, etxebizitza, enplegua), klima aldaketa eta ingurumenaren errespetua, hazkunde ekonomiko jasangarria eta inklusiboa, eta genero berdintasuna, besteak beste.

Aita Menni Ahizpa Ospitalarioek GJH guztiak betetzea babesten dute, batez ere gure erakundearentzat estrategikotzat jotzen ditugunak, gure jarduera sektorearen eta presentzia geografikoaren arabera.



POBREZIA DESAGERTZEA

Pobreziaren aurkako borroka gure misioaren parte da: "Harrera, laguntza eta zaintza espezializatua eta lehenetsia gaixotasun mentala, desgaitasun psikikoa eta fisikoa eta beste gaixotasun batzuk dituzten pertsonen, denbora eta leku bakoitzeko beharrak eta premiak kontuan hartuta, behartsuenak eta ahaztuen daudenak lehenetsiz".

Kolektibo horiek estigma sozial handia jasaten dute gaur egun ere, eta oztopo handiagoak dituzte lan merkatuan sartzeko garaian, eta ho-

rrek, aldi berean, erosahaldien txikiagoa, etxebizitza bat eskuratzeko arazoak, eta aisialdi edo kirol jardueretan aritzeko eta prestakuntza eskuratzeko zailtasunak eragiten ditu.

Aita Mennik estigmaren aurka borrokatzeko proiektuetan lan egiten du aktiboki, eta pertsonaren autonomia eta bizitzaren arlo guztietan integratzea helburu duten programak ditu.

Nazioartean, garapenerako lankidetzaren bidez, proiektuak garatzen ditugu Afrikan, bereziki zaugarriak diren eta bestela behar duten tratamendua edo medikazioa jasoko ez luketen pertsonen premia soziosanitarioak asetzen saiatzeko.



OSASUNA ETA ONGIZATEA

Gure jarduera soziosanitario nagusiaren bidez, zuzenean laguntzen dugu helburu honetan. Gure eredu asistentzialaren ezaugarri bereizgarriak arretaren gizatasuna eta etika dira, baita osasunaren ikuspegi integrala ere (prebentzioa, errehabilitazioa eta gizarteratzea).

Pazientearen arreta ulertzeko modu horrek eragin positiboa sortzen du GJH honi lotutako helburuetan, hala nola medikamentuen erabilera arduratsuan, gaixotasun ez-transmitigarrien prebentzioan eta tratamenduan eta osasunerako irizpide unibertsalean.

Gure ekarpena da, batez ere, gaixotasun mentala duten pertsonen, desgaitasun intelektuala dutenei, hartutako kalte zerebrala duten pazienteei eta adinekoei arreta profesionala eta kalitatezkoa bermatzea.



KALITATEZKO HEZKUNTZA

Aita Menni taldeetako profesionalak beren eza-gutzak eta esperientzia partekatzen dituzte, garatzen dituzten lan eremuei buruzko hitzaldiak eta konferentziak eskainiz —osasun mentala, jokabidearen nahasmendua duten desgaitasun intelektuala eta autismoaren espektroko nahasmenduak, kalte zerebrala, adinekoak eta psikogeriatría, mendekotasuna...—.

Halaber, prestakuntza espezializatua ematen dute maila guztietako hezkuntza erakunde askotan, publikoetan zein pribatuetan.

Gainera, Aita Menni urtero hartzen ditu unibertsitate eta ikastetxeetatik datozen praktiketako ikasle kopuru esanguratsu bat.

Nazioarteko gure lankidetzaren proiektuen barruan, laguntza programa bat eskaintzen dugu, Liberiako (Afrika) neska-mutilei kalitatezko hezkuntza emateko.



GENERO BERTINTASUNA

Ahizpa Ospitalarioak XIX. mendean sortu zen, osasun metaleko arazoak zituzten emakumeei tratamendua eskaintzeko xedearekin. Ildo beretik, gizartea emakume horiek jasaten duten estigma bikoitzaz sentzibilizatzeko lanean jarraitzen dugu, desberdintasuna nabarmenagoa baita, pobrezia, langabezia edo genero indarkeria mailaren zifretan agerian geratzen denez. Erakundeak pertsona guztien tratatu eta aukera berdintasuna bermatzen du, haien sexua edozein dela ere, baita eremu profesionalan ere, non hautaketa, jardueraren ebaluazio eta sustapen prozesuak berdintasun printzipioaren arabera arautzen diren, gure Jokabide Kodeak jasotzen duen bezala.



ENERGIA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSAGARRIA

Gure erabiltzaileei eta pazienteei arretarik onena eskaintzen jarraitzeko asmoz, azken urteotan gure instalazioen berrikuntza integrala egiten ari gara progresiboki Gesalibarren, eta gure instalazioen efizientzia energetikoa hobetzearen alde egin dugu, klimatizazio sistemen, LED argien, ate eta leihoen isolamendu egokiaren eta ekipamendu teknologiko efizienteagoaren bidez. Musakola Zentroak eguzki energia erabiltzen du, eta efizientzia energetikora eta kontsumoen murrizketara bideratutako hainbat sistema ditu.



LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Gure langileen %75ek kontratu mugagabea izateak erakusten du enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzeko dugun apustu irmoa. 1.000 profesional baino gehiagoko plantilla dugu. Gure ondasunak eta zerbitzuak erosten ditugunean ere, %98 baino gehiago Euskal Herriko hornitzaileei egiten zaizkielarik, hurbileko ingurunearen hazkunde ekonomikoa bultzatzen dugu.



DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

Baztertutako pertsonekiko sentsibilitatea da gure Erakundea oinarritzen duen balioetako bat. Gure jokabide kodeak ezartzen du gure kolaboratzaileek egiten duten jardueran, bai asistentzian, bai ez-asistentzian, tratu berdintasuna dagoela, diskriminaziorik egin gabe adinagatik, arrazagatik, generoagatik, sinesmen, sexu orientazioagatik, egoera zibilagatik, gaitasun desberdinagatik, egoera sozialagatik, orientazio politikoagatik, herri-tartasunagatik edo beste edozein inguruabarragatik.



INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

Jarduera guztietan zientzia eta gizatasuna bateratzeko asmoa dugunez, ikerketa eta irakaskuntza funtsezko alderdiak dira, eta erakundeak giza baliabide eta ekonomiko garrantzitsuak bideratzen ditu horretara. Azterlanak eta ikerketak gidatzen ditugu, eta Ahizpa Ospitalarioen Maria Josefa Recio Ikerketa eta Garapenerako Fundazioak (FIDMAG) eta gurekin lankidetzan ari diren beste erakunde batzuek gidatutako beste azterlan eta ikerketa batzuetan parte hartzen dugu.



KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Azken urteetan, gure jarduerak eragin dezakeen ingurumen inpaktua murriztera bideratutako hainbat neurri sartu ditugu. Eta gure barne kudeaketan aplikatu dira, prozedura, protokolo eta politika espezifikoak sortuta eta gure instalazioak hobetuta. Baina komunitate ospitalarioa ere sentsibilizatu da klima aldaketaren aurka borrokatzeko jarrera izatearen garrantziaz, gure osasunean ere eragiten duelako.



HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK

Beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin aliantza estrategiko sendoak sortzeak eskaintzen duen ahalmen biderkatzailean sinesten dugu. Ekintza kolektiboko proiektuetan parte hartzeak lan egiteko modu horrek dituen onurak erakutsi dizkigu.

ALiantza eta Harreman Institutionalak

Aita Menni Ahizpa Ospitalarioak gure lurraldeko eragile instituzionalekin duen inplikazioa 1898an hasi zen, Santa Ageda Osasun Etxe zaharrea lanean hasi zenean.

Hasiera-hasieratik, Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen historia administrazio publikoen historiarekin lotuta egon da, horiekin lankidetzaz sendoan baitihardu asistentzia eremuak hobetzeko eta eremu horiek gizartean sortzen ari diren premia berrietara zabaltzeko.

Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiak izan ziren Santa Ageda Osasun Etxeko lehen bezeroak, eta gaixotasun mentala izanik beren mende zeuden eta pertsonak zaintzeko eskatu zioten, ordura arte beste eskualde batzuetako psikiatrikoetan edo espetxeetan sartzen baitzituzten.

Harrezkero, erakundeekiko lankidetzaz eman kor hori mantendu egin da, eta orain euskal erakunde publikoak dira gure jardura asistentzialaren garapeneraren eta finantzaketaren aliaturik handienak.

Halaber, elkarrekin proiektuak eta jarduerak garatzen ditugun beste erakunde pribatu batzuekin etengabeko loturak eta harremanak ditugu, konbentziturik baikaude ekintza kolektiboak baliabideen erabilera efizienteagoa eta ezagutza truke aberasgarria dakarrela eta zerbitzatzen dugun gizartearentzat onuragarria dela.

EUSKAL ERAKUNDE PUBLIKOAK DIRA GURE ALIATURIK HANDIENAK GURE JARDURA ASISTENZIALA GARATZEKO ETA FINANTZATZEKO

ALiantza Estrategikoak

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Barne Saila.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea.
- Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.
- Kabia.
- Uliazpi.
- Adinberri.
- Udalak: Arrasate, Soraluze, Irun, Oñati, Bergara eta Beasain.
- Lares, Aesane, Osasunberri, Aspe.
- Basque Health Cluster, Aptes.
- Tecnalía.
- Ricors-Ictus Euskadi.
- Deustuko Unibertsitatea.
- Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mondragon Unibertsitatea.

IRAILA

LEHENDAKARIAK ETA OSASUN SAILBURUAK BISITA EGIN DIGUTE 125. URTEURRENAGATIK

Iñigo Urkullu lehendakariak eta **Gotzone Sagardui** Osasun sailburuak Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleak bisitatu zituzten irailaren 11n, 125. urteurrena dela eta.

Biek bi zentroetako taldeak zoriondu zituzten, eskaintzen duten zerbitzuagatik eta gizartearen beharrei erantzuteko egokitzeko duten gaitasunagatik.

Lehendakariak duela 125 urtetik “zerbitzu publikoko bokazio sakonarekin” garatzen duten lana eskertu zuen: “Aitzindariak izan zineten pertsona ahulenezako zerbitzuak sortzen, erakunde publikoek erantzukizuna gure gain hartu baino hamarkada batzuk lehenago. Eta gure gain hartu genuenean, bidelagun bihurtu ginen, gure indarrak batuz”.

Era berean, Osasuneko sailburuorde **Jose Luis Quintas**, EAEko koordinatzaile soziosanitario **Jose A. de la Rica** eta



Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari **Alvaro Iruin** bertan izan ziren.



OTSAILA

AITA MENNI OSPITALEA EUSKADIKO RICORS-ICTUS SAREAN SARTU DA


Aita Menni Ospitalea hainbat ikerketa zentro biltzen dituen RICORS-Ictus sarean sartu da, horien artean iktusari lotutako hainbat ikerketa zentro daudelarik, besteak beste, Bizkaiko Gurutzetako eta Gorkizko ospitaleak, BCBL (Basque Center on Cognition, Brain and Language), CIC biomaGUNE (Biomaterialetako Ikerketa Kooperatiboko Zentroa) edo Achucarro Basque Center for Neuroscience.

AZAROA

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK ETA GIZARTE POLITIKETAKO DIPUTATUAK MUSAKOLAKO EGUNEKO ZENTRO BERRIA BISITATU DUTE

Zaintza eta Gizarte Politiketako foru diputatu **Maite Peñarekin** batera, azaroaren 29an, **Eider Mendozak** Musakolako adinekoen eta kalte zerebralaren eguneko zentro berriaren instalazioak bisitatu zituen, Arrasaten, non Etxetek mendekotasunerako laguntza teknikoaren foru zerbitzuaren erakusketa bat dagoen.

GOBERNU ETA KUDEAKETA ORGANOAK



TOKIKO NAGUSIA

Tokiko Nagusiak probintziako Nagusiaren aurrean erantzuten du, eta agintea du Arrasateko Etxean eta bertako ahizpen eta zentro eta dispositiboen gain. Bere funtzioen artean daude Erakundea ordezkatzeko bere esparruan, ondasunak eta zentroak tokiko kontseilariekin bat eginda eta, beharrezkoa bada, beste pertsona batzuen laguntzarekin administratzea, eta bizitza espiritual eta ekintza apostolikoa bultzatzea eta sustatzea.

ZUZENDARITZA KONTSEILUA

Probintziako Nagusiak izendatzen duen organo kolektibo bat da, eta Zuzendari Gerentea da burua. Zuzendaritza, kudeaketa eta administrazioeko eskumen eta funtzioak hartzen ditu bere gain oro har, kudeaketa eraginkorra eta efizientea bultzatuz eta identitate instituzionalari leial izanik.



BARNEKO ARAU ESPARRUA

Arauk betetzea, praktika onak garatzea, gobernu ona eta emandako baliabideen kudeaketa eraginkor eta arduratsua izan dira gure erakundearen funtsezko konpromisoa historikoki.

NORTASUN ESPARRUA

Modu artikulatuan azaltzen ditu eskaintzen dugun zerbitzuaren berezitasuna eta kalitatea identifikatzen duten elementuak.

AHIZPA OSPITALARIOEN NORTASUN-ESPARRUAREN EREMUAK

ASISTENTZIALA

Zuzeneko arretaren printzipio nuklearrak.

LAGUNTZAILEEKIKO HARREMANA

Profil profesionala eta garapenaren elementuak.

KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIOA

Zuzendaritzako oinarriak.

ELKARRIZKETA INTERES TALDEEKIN

Komunikazioa plana.

PORTAERA KODEA

Gure jarduna arautzen duten printzipio etikoak eta jokabide arauak

Portaera Kodea nazioartean aitortutako giza eskubideetan, Elizaren doktrina sozialean eta Erakundearen Nortasun Esparruan oinarritzen da.



2017an Ahizpa Ospitalarioen Portaera Kodea onartu zen, non Komunitate Ospitalarioa osatzen duten pertsonen jarduna gidatu behar duten printzipio etikoak eta jokabide arauak jasotzen diren, batez ere zuzendariei eta kolaboratzaileei dagokienez.

Beste batzuen artean zabaltzea ere sustatzen da: hornitzaileak, boluntarioak eta ongileak, besteak beste.

Berdintasuna eta diskriminaziorik eza, datuen babesa eta pribatutasuna, lan jazarpena, harreman instituzionaletako etika, hornitzaileekiko harremana, interes gatazkak eta komunikazioaren gardentasuna dira gure Portaera Kodean arautzen diren alderdietako batzuk.

KONTROL ETA JARRAIPENERAKO ORGANOA. BETETZE BATZORDEA

Betetze Batzordea da dokumentu honekin lotutako guztia betetzen dela bermatuko duen kontrol eta jarraipen organoa. Bere jardura eremua Espainiako Probintzia Kanonikoa da.

Batzordea osatzen duten lau pertsonak probintziako Nagusiak izendatzen ditu, eta jasotako kontsultak, kexak edo komunikazioak aztertu eta erantzuten dituzte, prozeduran salatzailearen behar bezalako konfidentzialtasuna babestuta.



BETETZE BATZORDEAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO KANALA

Gure webgunean Betetze Batzordearekin harremanetan jartzeko kanal bat dago, barneko eta kanpoko interes taldeen eskura.

2023an ez da salaketarik jaso Portaera Kodearen irregulartasun edo arau hauste posiblei buruz.


JASANGARRITASUN FINANTZARIOA

Gure kudeaketa ekonomikoa artatzen ditugun pertsonen zerbitzura dago

Irabazi asmorik gabeko erakunde bat gara. Baliabideak efizientziaz kudeatu nahi ditugu, gure iraunkortasuna bermatzeko, laguntzaileekin eta gizartearekin dugun konpromiso gisa. Pertsona guztiengana iristeko lan egiten dugu, haien egoera sozial edo ekonomikoa gorabehera.

AITA MENNI

NEGOZIO ZIFRAREN BILAKAERA




SARREREN BANAKETA




	2022 (%)	2023 (%)
GIPUZKOAKO ALDUNDIA	31,2	30,2
EUSKO JAURLARITZA - OSASUN S.	27,3	26,9
BIZKAIKO ALDUNDIA	21,0	21,7
PARTIKULARRAK PRIBATUAK	13,4	13,2
PARTIKULARRAK KOORDAINKETA	3,6	3,7
MUTUALITATE ETA ASEGURU-ETXEAK	2,0	2,3
BESTEAK	1,0	1,6
ARABAKO ALDUNDIA	0,4	0,3


JARDUEREN BANAKETA



KOSTU ARRUNTEN BANAKETA



INBERTSIOEN BILAKAERA





ARRETA INTEGRALA, PERTSONALIZATUA ETA KALITATEZKOA

Erabiltzaileak eta pazienteak dira gure interes talde nagusia, eta hartzen ditugun erabaki eta neurri bakoitzaren erdigunean daude. Artatzen ditugun pertsonen asistentzia integrala eta beren beharretara egokitua jaso dezaten lan egiten dugu, sorrerako karismatik abiatuta eta balio ospitalarioen arabera.

Bere historian zehar, Aita Menni Ahizpa Ospitalarioek nabarmen erakutsi dute eskaintzen dituen arretan prozedurarik efizienteenak, langileentzako eta pazienteentzako instalaziorik erosoena eta teknologiarik aurreratuenak sartzeko apustu sendoa, zientzia eta karitatea bateratuz.

Gure instalazioak arreta eredu berriek eskazen dituzten aldaketetara egokitzeko ahalegin etengabea egiten dugu, espazio berriak sortuz eta beste batzuk eraldatuz, unitateak berrantolatuz eta, azken batean, gure zentroak beren helburuetarako ahalik eta modurik onenean zerbitzatzen saiatuz.

**PROZEDURA EFIZIENTEAK,
INSTALAZIO EGOKIAK ETA
TEKNOLOGIA AURRERATUA
TXERTATZEAK HOBETO ARTATZEKO
AUKERA EMATEN DIGU**

Ahalegin hori gure prozeduretara eta lan egiteko moduetara ere zabaltzen da, eta horiek etengabe berrikusten eta aztertzen ditugu, gure lanean eraginkortasun handiagoa izateko, pazienteentzako eta langileentzako segurtasun handiagoa izateko eta Komunitate Ospitalarioa osatzen dugun pertsona guztion gogobetetze handiagoa lortzeko.

Etengabe bilatzen dugu gure zerbitzu teknikoaren zorroan egokientzat jotzen diren teknikak eta tresnak sartzea, betiere ebidentziaren ikuspegitik, eta, betiere gure arretaren kalitatea eta pazienteen eta erabiltzaileen gogobetetzea hobetzeko asmoz, oso ingurune aldakor batean.

Eguneratuta egoteak aukera ematen digu hobeto zaintzeko, eta, horregatik, garrantzia handia ematen diogu gure langileen prestakuntzari, hainbat jardueraren bidez, horien artean saio klinikoak egitea edo kongresu eta ikastaroetara joatea.

Balio Ospitalarioei buruzko prestakuntzak ere badu lekua prestakuntza programa horietan, gure arretari eman nahi diogun izaera integral eta pertsonalizatuaren barruan.

Gure ezaugarrietako bat da eskaintzen dugun arretaren barruan, pazienteek eta erabiltzaileek prozesu terapeutikoan dituzten dimentsio biologiko edo psikologikoei ez ezik, neurri berean ematen diegula garrantzia dimentsio soziologiko eta espiritualei ere.

Pastoral eta Arreta Espiritual eta Erlijio-soko Zerbitzuak langile asistentzialen lana osatzen du, gure erabiltzaileen behar espiritualetan lagunduz eta ondoan egonez, haien konbikzioak sakon errespetatuz eta kredo edo sinesmenengatik diskriminaziorik egin gabe.



MUSAKOLA ZENTROA, ZENTRO BERRIA ARRASATEN

Adinekoen eta kalte zerebrala dutenen eguneko zentroak hartzen ditu.

Musakola Zentroa 2023ko maiatzaren 1ean jarri zen abian, eta hor integratu ziren Aita Mennik Arrasateko zenbait kokagunetan ematen zituen hainbat zerbitzu. Zentro berriak bi solairu ditu, eta izena ematen dion auzoan dago, Arrasateko iparraldeko sarreran. Eraikin berrean biltzen ditu **Adinekoen Eguneko Zentroa** –lehen Uribe auzoan zegoen–, Azoka kalean zegoen **Kalte Zerebralaren Eguneko Zentroa** eta kanpo kontsulten zerbitzu bat.

Guztira eguneko zentroko 60 plaza ditu adinekoentzat, eta 30 gehiago kalte zerebrala dutentzat. 90 plazetatik 78 Gipuzkoako Foru Aldundiarekin itunduta daude.

Ekipamendu berria abian jartzearekin, espazio berezietan egiten ziren jarduera asistentzialak zentralizatu ditugu, eta horrek emandako zerbitzua hobetzea eta erabiltzaileen eskura ins-

talazio modernoagoak eta haien beharretara egokituak jartzea ekarri du.

Zentroak bi gune bereizi ditu eguneko bi zentroetarako, gimnasio bat, eta etxerako laguntza teknikoaren **Etxetek** foru zerbitzuaren erakusketa gune bat, gune komunez eta bilera gela batez gain.

Eraikin berria efizientzia energetikoaren irizpideekin diseinatu da, eta proiektu berritzaileak garatuko dira, hala nola Musakola Gizarte Lab, Arrasateko Udalarekin lankidetzan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin abiatutako ekimena, hauskortasunagatik eta zurgarritasunagatik arriskuan dauden biztanleak detektatzeko eta haientzako arreta dauden baliabide eta dispositiboetan integratzeko aukera emango duena.

NERABEEN UNITATE SOZIOSANITARIO BERRIA

Aita Menni Ospitalean integratuta, egonkortze psikopatologikoa eta portaerarena behar duten 12 eta 18 urte arteko adingabeak artatzen ditu.

Nerabeen Unitate Soziosanitarioaren helburu nagusia krisi egoeran dauden eta maila psikopatologikoa edo portaera egonkortu beharra duten 12 eta 18 urte arteko adingabeak artatzea da.

Unitateak Aita Menni Ospitalean integratutako etxebizitza baten forma hartzen du. Partekatutako 5 logelak osatzen duten pisua, eta 10 adingabe hartzeko lekua du. Gune komunak ere baditu (egongela, sukaldea, jangela), eta nerabeek bizikidetzako trebetasunak lantzen dituzte bertan.

Unitatea artatzen duen diziplina anitzeko taldeko kideak dira koordinatzaile bat, hezitzaile taldea (gizarteratzaileak eta gizarte hezitzaileak) eta laguntza taldea (psikologoa, gizarte langilea, erizaina eta psikiatra).

Modu espezifikagoan, arreta indibidualizatuaren bidez, gizartean eta komunitatean egokitzeko trebetasunak lantzen dira adingabeekin. Horrelako jarduerak komunitaterako irteeretan egiten dira.

Horrez gain, Montessori Ereduaren bidez, eta gizarte hezitzailearen etengabeko laguntzarekin, nerabeen hezkuntzaren arloa ere artatzen



da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.

Pisu soziosanitarioak erizaintzako langileen estaldura ere badu, osasunari lotutako alderdiak lantzeko, banakako nahiz taldeko esku hartzearen bidez, adingabeen ongizatea bultzatzeko.

Laguntza taldeak pertsonarengan zentratutako helburuak planteatzen ditu, unitate honetan ezarritako errehabilitazio jardueren bidez lantzen direnak. Eta hori guztia hezitzaile taldeak zorrotz gainbegiratuta egiten da, pisuan ezarritako kanpoko laguntzak erabiliz, segurtasun handiagoa bermatzeko.

OROZKOKO "JESUS MARIA" EGOITZA KUDEATZEN HASI GARA

Arrasateko Musakola Zentro modernoaz gain, 2023an Aita Menni Ahizpa Ospitalarioak Ama Mesedetakoek Orozkoko (Bizkaia) Ibarra auzoan duten **"Jesus-Maria" Hezkuntza Berezi-ko Zentroa** kudeatzen hasi ziren.

Zentroak 53 plaza ditu.


Zentroa XVI. mendeko komentu batean dago, eta 1963an hasi zen adimen desgaitasuna

duten neskatoak artatzen, eta, ondoren, des-gaitasun fisiko, psikiko eta sentsorialeko maila desberdinak dituzten emakumeei arreta ematen.

Azken urteetan erakunde pribatu batek kudeatzen zuen zentroa, eta urte amaieran Aita Menni Ahizpa Ospitalarioek hartu zuten kudeaketaren ardura, langileen plantilla subrogatuta.

ZERBITZUEN BIKAITASUNA ETA KALITATEA

Gure Eredu Asistentzialaren funtsezko printzipioetako bat da kalitate teknikoa eta humanoa hiru arlotan bermatzea: teknika eta humanismoa integratzea, instalazioak egokitzea eta kalitatea hobetzea.



EKINSARE, BERRIKUNTZA SOZIALEKO PROIEKTU BAT

2023an eman zituen lehen pausoak Musakola Ekinsarek. Berrikuntza sozialeko proiektu bat da, **hiru ekimenek** osatua, adinekoen arreta eta bizi kalitatea eremu komunitarioan eraldatzeko helburuarekin; urteko 365 egunetako estaldura eskaintzen du, eta foru eta udal administrazioen eta Hirugarren Sektoroko erakundeen parte hartzea du.

ZAINITZA ESKOLA

Helburua adinekoen eta zaintzaileen bizi kalitatea hobetzea da, haien prestakuntzaren eta trebakuntzaren bidez, teknologia berrien erabilera sartuz. Zahartze aktiboan oinarritzen da, osasuna sustatzera bideratuta, ingurune seguru batetik, non modu aktiboan parte hartu ahal izango den inplikazio maila desberdinekin, garapen pertsonalerako baliabide eta esperientzia berrien bitartez.

ITZULGARRI

Helburua da baloratzea ea 12 astez esku hartze fisiko eta kognitibo bat garatzeak adinekoen hauskortasun egoera irauli dezakeen, haien bizi kalitatea hobetzeko eta gaixotasun eta mendekotasun arriskua murrizteko.

DENBORA BANKUA

“Silver economy” kontzeptuan oinarritutako sistema bat da, zerbitzuen eta ezagutzen trukerako, gure adinekoen esperientzia eta gaitasunei balio bat emanez, belaunaldien arteko harremanak hobetzen laguntzeko, pertsonen eta komunitateen ongizatea eta aurrerapen sozioekonomikoa bultzatzeko bitarteko gisa, arreta berezia jarrita laguntza handiagoa behar duten belaunaldietan.

MARTXOA

ESPERIENTZIAREN ARRAKASTA HAUREN EXOESKELETOAREKIN

Atlas 2030 exoeskeletoa erosi ondoren, Aita Mennik, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Aspace Gipuzkoarekin lankidetzan, proba pilotu bat hasi zuen 2022an, paralisi zerebrala duten 19 neska-mutilek 6 asteko tratamendu programa bat baliatu ahal izan zezaten, haurrentzako exoeskeleto bat erabiltzeak eguneroko bizitzako jardueren prozesuan eta errehabilitazio ekintzetan duen inpaktua neurtzeko.

2023ko martxoan azterketaren emaitzak jendaurrean aurkeztu ziren Donostian, eta han izan ziren Gipuzkoako ahaldun nagusia, parte hartu zuten hiru erakundeetako arduradunak eta lana egin zuten bi terapeutak.

Azterketak ondorioztatu zuen exoeskeletoa segurua eta ondo onartua zela parte hartu zuten adingabeen eta haien familien aldetik, eta hainbat hobekuntza ikusi ziren erresistentziari eta ibilitako distantziei dagokienez, baita hobekuntzak parte hartze sozialean, lo eta hesteetako erritmoan eta elikaduran ere.

Ekimenak erakunde askoren interesa piztu zuen, eta, ondorioz, **Irma Garcari** eta **Nerea Meaberi** beren esperientzia aurkezteko eskatu zieten Madrilgo osasun publikoko profesionalen aurrean eta foro espezializatu askotan, hala nola Pediatriako Fisioterapiako Espainiako Elkartearen Urteko Jardunaldian, Neurorrehabilitazio Robotikoko Foro Iberoamerikarrean edo Ctnnb1 Kongresuan.





MAIATZA

IRUNGO UDALARI ARBESEKO EGOITZA PROIEKTURAKO AHOHKULARITZA EMAN DIOGU

Irungo Arbes eremuak egoitza gun bat hartuko du 2026an, adinekoentzat edo mendekotasuna dutenentzat. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako proiektuak 130 plazako egoitza, 30 plazako eguneko zentroa eta adinekoentzako 54 plazako babespeko apartamentuak jasotzen ditu, Irungo Udalak finantzatuta.

Aita Menni Ahizpa Ospitalariak ekimenean parte hartu du, Irungo Udalari babespeko apartamentuen oinarrizko proiektuan aholkularitza emanez eta bere esperientzia luzea eskainiz, proiektuaren helburuko adinekoen eta mendekotasuna duten pertsonen behar espezifikoak erantzun diezaien.

SORALUZEKO MESEDEETAKO ANDRE MARIA EGOITZAKO PLAN ESTRATEGIKOA IDATZI DUGU

Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen eta Soraluzeko Mesedeetako Andre Maria egoitzaren arteko lankidetzak akordioaren barruan, 2023an egoitzaren etorkizunerako bideragarritasunari buruzko Plan Estrategikoa idatzi genuen, baita adinekoen

zentroak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren 126/2019 Dekretura egokitzea ere.

Aurreko urteetan, Ahizpa Ospitalariak zentroaren auditoria operatiboaz arduratu zen.

KALITATEA HOBETZEA

Antolamendu eta Kalitate Batzordea barne organo bat da, lantaldeak osatzen eta koordinatzen dituena, asistentziaren kalitatea eta prozesuak hobetzeari lotutako alderdietara bideratuta dago.

KALITATEA

- ISO 9001 ziurtagiriak.
- Kudeaketa eredu berriak.
- Osasun ebaluazioa.
- Probintzia prozedurak.
- Arloetako aginte panelak eta programazioen hedapena.
- Medikamentuaren kudeaketa.
- Obra Ospitalarioaren Oinarrizko Eskakizunen analisisa.

ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA

- Informazio zerbitzua.
- Erreklamazioen kudeaketa.
- Alderdi interesdunen gogobetetzearen ebaluazioa.

PAZIENTEAREN SEGURTASUNA

- Segurtasun Planaren koordinazioa.
- Arriskuen azterketa.
- Gertakariak jakinarazteko eta aztertzeke sistemaren kudeaketa.
- Segurtasun prozesuen diseinua.
- Segurtasun arloko prestakuntzaren kudeaketa.

BERRIKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza.
- Lantaldeak.
- Tresnak.
- Asistentzia ildoak.
- Proiektuen zorroa.
- Praktika onen eta ispilu zentroen bloga.

ARAUAK

- Baimenak kudeatzeko koordinazioa.
- Ikuskapenen jarraipena eta kontrola.
- Lege araudiaren kontrolaren koordinazioa.

LEHIAKETA PUBLIKOAK

- Zerbitzuak emateko lehiaketa publikoen deialdiak.
- Dirulaguntzak.
- Kanpo aitortpenak.

DATUEN BABESA

- Arriskuen azterketaren koordinazioa eta inaktuaren ebaluazioa.
- Datuak babesteko kudeaketa prozesuen diseinua eta ezarpena.
- Gertakarien eta segurtasun arrakalen kudeaketa.

ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA

Urtero egiten dugu Erabiltzailearen Arreta Zerbitzuan aurkeztutako kexa eta erreklamazioen balantzea, eta hiru urtean behin, familiei eta erabiltzaileei gogobetetze inkesta bat egiten diegu.

KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK

LERRO ASISTENTZIALAK

	2019	2020	2021	2022	2023
Osasun Mentala	4	7	15	4	9
Adineko Pertsona	95	26	31	20	14
Kalte Zerebrala	29	8	9	3	1
Desgaitasun Intelektuala	0	1	4	0	4
GUZTIRA	128	42	59	27	28

TIPOLOGIA

	2019	2020	2021	2022	2023
Arreta orokorra	4	7	15	11	14
Erizaintza eta oinarritzko zainketa	95	26	31	6	3
Zerbitzu orokorrak	29	8	9	10	6
Administrazioa	0	1	4	0	1
Beste batzuk	0	0	0	0	4
GUZTIRA	128	42	59	27	28

GOGO BETETZE-INKESTAK

	2012	2015	2018	2021
Egindako inkestak	822	680	1.099	1.056

2021ko inkesta

	Desgaitasun Intelektuala	Osasun Mentala	Adineko Pertsona	Kalte Zerebrala
Ospitaleratze osoa	8,74	6,18	8,37	8,30
Ospitaleratze partziala		8,66	8,49	8,83
Zerbitzu ambulatorioa				9,07

PAZIENTEEN SEGURTASUNA

Pertsona guztiak —pazienteak, senideak eta profesionalak— **Aita Menni** seguru egon eta senti daitezen lortzea da Pazientearen Segurtasun Estrategiaren eginkizuna.

2023an zehar, Pazientearen Segurtasun Estrategia hedatzeko urrats sendoak egiten jarraitu dugu.

Pazientearen Segurtasun Batzordea (PSB) Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen zentroyen segurtasun sistemaren funtsezko pieza bat da, segurtasunaren kulturaren lidergo, erreferente tekniko eta sustatzaile gisa.

Kontuan hartuta Aita Menniren dimentsioak eta plantilla zabala, zerbitzuen heterogeneotasuna eta artatutako pertsonen tipologia zein zentroyen eta kokapen fisikoen sakabanaketa geografikoa, tokiko 17 kudeatzaile eta lider arduratzen dira beren eremuko segurtasun ekintzak koordinatzeaz, gertakariak jakinaraztea sustatzeaz eta horien ikerketan parte hartzeaz.

BATZORDEAK ETA LANTALDEAK

Bi batzorde iraunkor ditugu, arretaren funtsezko bi prozesutan organo aholkulari gisa jarduten dutenak:

- Zauri kronikoen batzordea.
- Kontentzio batzordea.

Gainera, arrisku espezifikoak lantzeko hiru lantalde ditugu:

- Erorikoak.
- Ihesak.
- Disfagia.

ABENDUA

DISFAGIARI ETA SUIZIDIOAREN PREBENTZIOARI BURUZKO JARDUNALDIAK

Pazientearen Segurtasun Estrategiari lotutako prestakuntza jardueren barruan, 2023an bi jardunaldi antolatu ziren, ezagutzak eta ebidentzia eguneratzeko.

Horietako batek suizidioa izan zuen gai nagusi, eta hainbat gai landu ziren, hala nola gaixotasun mentalarekin duen lotura, arriskuaren adierazle izan daitezkeen faktore esanguratsuak eta ebaluatzeko irizpideak, suizidio arriskurako protokoloak abian jartzea ahalbidetzen dutenak.

Beste saio batean disfagia landu zen, arrisku elementu, batez ere biztanle zaharrenean artean. Bere intzidentzia altuak eta ondorioen larritasunak plangintza egoki bat izatea eskatzen dute, arrisku faktoreen ebaluazio pertsonalizatua nahiz zentroetako jarduera prozedurak jasoko dituen, eztarria tratatzea gertatzen denean.

Jardunaldian erizaintzako langileentzako tailer praktiko bat egin zen irenasketaren balorazio funtzionalari buruz.

LIBERA-CARE ARAUA EZARTZEA

2023an, Libera-Care araua ezartzeko prozesua hasi dugu, gure zentroetan Pertsonarengan Oinarrituta aplikatzen dugun arreta ereduan lotura fisiko eta kimikorik gabeko zaintza txertatzeko.



Proiektuaren aurkezpena Oñatiko San Martin Egoitzan.

Proiektuak izaera estrategikoa du Zuzendaritzaren aldetik, epe ertainean Pertsonarengan Oinarritutako Lotura Fisiko eta Kimikorik Gabeko Zaintza Eredua sendotzeko. Prestakuntza, gaikuntza, aholkularitza eta ezarpenean laguntzeko proposamen bat diseinatu da, eta 14-18 hilabete inguruko iraupena aurreikusten da.

Zentro hauetan ezarriko da:

- Barandiaran Egoitza (Durango)
- Txurdinagabbarri Egoitza (Bilbo)
- San Martin Egoitza (Oñati)
- Aita Menni Ospitalea (Arrasate)

Proiektua senide, egoiliar eta inplikaturako zentro eta unitateetako profesionali aurkeztu zaie —170 pertsona inguru—, eta lanari buruzko sentsibilizazioa eta planifikazioa landu nahi dira, loturarik gabeko zentro bihurtzeko.

Adineko Pertsonen unitate eta zentroetan ezartzen hasi ginen, gainerako espezialitateetara pixkanaka zabaltzeko asmoarekin.

Zentro bakoitzak Talde Lider indartsu eta inplikatu bat izendatuko du, inplementazioaren erantzukizuna bere gain hartuko duena, inplikaturako profesionalekin. Diziplina anitzeko taldea da, eta bertan zuzendariek, erizainek eta laguntzaileek, medikuek, garbitzaileek, fisioterapeutek, gizarte langileek, psikologoek eta begiraleek parte hartzen dute, erizaintzako laguntzaileen zeregina funtsezkoa izanik proiektuaren arrakasta ziurtatzeko.

Aita Mennik urteak daramatza ildo horretan lanean, eta orain kontzientziazio sakonagoan eta egoera konplexuagoei heltzen aurrera egiten jarraitzeko bultzada eman dio, eta, helburu horretarako, Cuidados Dignos Fundazioan oinarritzea erabaki du.

ADINEKOENTZAKO JANARIEI ETA EDARIEI BURUZKO SMARTFOO(L)D IKERKETA PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUGU

Ahizpa Ospitalarioek dagoeneko 4 urte daramagu Smartfoo(l)d proiektuan parte hartzen, adinekoentzako janari eta edari espezifikoaren teknologien arloa ikertzera bideratuta.

Ausolanek zuzendua, proiektu honen asmoa da Euskadiko biztanleen osasunarekin eta zahartzearekin lotutako ikerketa eremuan ekarpen bat egitea, alderdi hauei erantzuteko: oraingo egoera, ongizate sozialaren inguruko

kezka eta elikadurari lotutako gaixotasun kronikoen osasun kostuen murrizketa.

Egitasmo hau ez ezik, Aita Menni Ahizpa Ospitalarioetan bestelako proiektu batzuk ere ari dira garatzen adinekoen elikaduraren arloan, esate baterako, Disfagia Kodea I+G+B proiektua, Adinberriren laguntzarekin garatua, adinekoen egoitzetan disfagia goiz antzemateko eta tratatzeko metodologia bat ezartzeko.

AITORPENAK ETA SARIAK

ABENDUA

IRMA GARCIA ETA NEREA MEABE, URTEKO FISIOTERAPEUTAK

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak "Urteko fisioterapeutarik onena"-ren saria eman die Haurren Errehabilitazio Zerbitzuko gure fisioterapeutei, garun paralisia eta antzeko patologia dituzten haur talde baten tratamenduan Atlas 2030 exoeskeleto pediatrikoa erabiltzeari buruz egin duten azterlanagatik.



IRAILA

ERTZAINTZAN SUIZIDIOAREN PREBENTZIOAN EGITEN DUGUN LANA SARITU DUTE

Alfonso Saez de Ibarra Psikologia Klinikoko psikologo espezialista 1998tik Aita Menni Ahizpa Ospitalariak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskaintzen dion asistentzia eta prebentzio jardueraren koordinatzailea da, eta Polizien Suizidioa Prebenitzeko Andaluziako Elkarteak

emandako errekonozimendu domina jaso zuen. Arlo horretan egiten den lana alderdi asistentzial eta terapeutikoetan (arreta psikologikoa eta psikiatrikoa) nahiz prebentzio eta prestakuntza alderdietan oinarritzen da, Ertzainaren plantillan osasun mentalaren zaintzari eta prebentzioari dagokienez.

BIOETIKA

Erantzukizuna eta zintzotasuna ezinbestekotzat jotzen ditugu hauskortasun egoeran eta bazterketa arriskuan dauden pertsonak artatzeko, eta lehen egunetik markatu dute gure portaera, funtsezkoak direlako “jarduera guztietan etikaren” balio ospitalarioa gauzatzeko.

Ahizpa Ospitalarioen zentroek Bioetikaren berrezko printzipioak eta balioak txertatzen dituzte erabaki asistentzialak hartzeko garaian. Pertsonaren duintasunaren defentsak zentralizatzen ditu gure ahaleginak, osasun arazoengatik ahulago senti daitekeenean, zientzia eta humanizazioa uztartuz.

Jarduera osoan dimentsio etikoa gehitzen dugu, osasun laguntzatik gizarte eta hezkuntza ekintzaraino, eta elkarriketa bioetikoak sustatzen dugu, eguneroko praktikan printzipio eta irizpide komunen inplikazioa argitzeko.

Etika gure jarduera guztien parte da, eta bermatu egin behar da, bai xedeetan, bai edozein bitartekotan.



ASISTENTZIA ETIKORAKO BATZORDEA

Aita Mennik, 2015az geroztik, **Asistentzia Etikarako Batzorde** bat du (AEB), hainbat osasun langile, jurista, lego eta bioetikako espezialistak osatua.

Bere eginkizuna da gaixoei asistentzia ematen zaien bitartean sor daitezkeen gatazka etikoen aurrean aholkularitza eskatzen dutenei aholku ematea.

AEBk kalitate asistentziala eta laguntza ematen du arazo etikoak ebazteko, praktika asistentzian erabakiak hartzeko orduan hainbat balio sartuz.

Eginkizunak

- Ahalik eta ingurune asistentzialik gizatiarrena sustatzea.
- Lan egitea harreman asistentzian esku hartzen duten pertsonen duintasuna errespetatzea.
- Gatazka etikoak sortzen diren egoeretan, erabakiak hartzeko prozesuan aholkuak ematea.
- Ikuspegi etikotik aholkuak ematea.
- Langile asistentzialen prestakuntza bioetikoan laguntzea.



ENPLEGU EGONKORRA ETA KALITATEZKOA SORTZEN DUGU

Ahizpek eta profesionalak, Misio partekatu batean, eta prestakuntza tekniko handiari eta gizatasunari esker, egunero jartzen dute estilo ospitalarioa praktikan, betiere gure Erakundearen konfiantza jarrita artatzen ditugun pertsonen zerbitzura.

Gure mila kolaboratzaile baino gehiagoren prestakuntza, lan gaitasuna eta esperientzia, baita paziente, erabiltzaile eta senideekiko tratuan erakusten duten berotasuna ere, gure erakundearen elementu bereizgarriak eta berezkoak dira.

Enplegu egonkorra sortuz egiten dugu gure ekarpenik handiena gizartearen garapen sozial eta ekonomikoan. Kontratazio mugagabearen aldeko gure apustuaren erakusgarri da **plantilla osoaren %75k baino gehiagok kontratu mugagabea duela**.


GURE TALDEA DA GURE INDARRA

Kalitatezko arreta bermatzeko, beharrezkoa da profesional talde bat izatea, prestakuntza tekniko eta humanoa duena



AITA MENNI





BILAKAERA



AITA MENNI OSPITALEA



AITA MENNI GIZARTE ZERBITZUAK



AITA MENNI OSPITALEA + AITA MENNI GIZARTE ZERBITZUAK



PRESTAKUNTZA

EKINTZAK
150

LANGILEAK
610

ORDUAK
7.658

INBERTSIOA
135.669 €

PRESTAKUNTZA



APIRILA / AZAROA

GURE ZUZENDARI MEDIKOAK IDENTITATEA, PSIKOPATOLOGIAKO ARAZO NAGUSI GISA ETA HASIERA BERANTARRREKO PSIKOSIAK AZALDU ZIZKIGUN

Gure zuzendari mediko **Manuel Martin Carrasco** doktoreak bi saio kliniko eman zizkien Aita Menni Ahizpa Ospitalarioetako langileei.

Lehenengoan, apirilean antolatutakoan, sintoma mentalek eta adierazpen psikopatologikoen denboran zehar izan duten bilakaera jorratu zuen, eta identitatearen kontzeptuan eta sintoma mentalen eraketarekin duen harremanean sakondu zuen.

Azaroan, helduaroko psikosiei buruzko ezagutzak partekatu zituen: nahasmendu

multzo garrantzitsu bat da, diagnostikoari eta tratamenduari dagokienez erronkak dituen, eta gero eta ohikoagoa izango dena, adineko biztanleriaren hazkundera dela eta.

“Tradizionalki, nahasmendu psikotikoak bereziki adin goiztiarrei zegozkiela pentsatu izan da –azaldu zuen–. Baina psikosi arriskua bizitza osoan zehar dago. Izan ere, psikosien 1/4 inguru 40 urteren ondoren gertatzen dira, eta agerraldi horien %23 adineko pertsonengan gertatzen dira. Gehienak dementzia eta nahasmendu depresiboekin lotzen dira, eta %1 bakarrik koka daitezke eskizofrenia berantiarren barruan (EB)”.

APIRILA

TRATAMENDU SOZIOKOMUNITARIO ASERTIBOA

Ruben de Pedro psikiatra Bilbon arazo mentalak dituzten etxerik gabeko pertsonak artatzen dituen Tratamendu Asertibo Komunitarioko Taldeko (ETAC) arduradunetako bat da, eta etxerik gabeko pertsonekin egindako lanketa terapeutiko horren oinarriak azaldu zituen; Bilbon 500 inguru dira etxegabeak. “Arreta ahal den

neurrian jasotzen dute, eta lotura hori adiskidetasun moduko bat da azkenean, nahiz eta ez den ahaztu behar zein zaila izan daitekeen eskizofrenia edo beste buru nahasmendu larri bat duen eta sistematik kanpo dagoen, edo medikaziorik hartu nahi ez duen edo edaten duen norbaitengana hurbiltzea”, azaldu zuen.

URRIA

OREKARI ETA KONTROL MOTORRARI BURUZKO PRESTAKUNTZA FISIOTERAPEUTENTZAT

Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen Fisioterapia Arloak "Paziente neurologikoaren oreka eta kontrol motorra, ebidentzian oinarritua" lantzeko bi eguneko prestakuntza mintegi bat antolatu zuen, errehabilitazio neurologikoko prozesuetan dauden pazienteentzako arreta fisioterapeutikoaren arlo horri lotutako ikuspegi terapeutiko berritzailei buruzko ezagutzak eguneratzeko.

URRIA

DESGAITASUN INTELEKTUALARI BURUZKO KONGRESUETARA JOAN GARA

Desgaitasun Intelektualaren eta Autismoaren Espektroko Nahasmenduen Unitateko asistentzia taldeko profesionalak telematikoki parte hartu zuten beren jarduera eremuari lotutako hainbat topaketa profesionaletan, hala nola Jokabidearen Nahasmenduari buruzko Estatuko 6. Kongresuan edo Asprogradesen Paso a Paso 4. Kongresu Nazionalean, Bartzelonan eta Granadan, hurrenez hurren.

PERTSONAK



EKAINA

MANUEL MURIE NEUROLOGOA, KALTE ZEREBRALEKO KOORDINATZAILE BERRIA

Aita Menni Ahizpa Ospitalarioak erakundeak **Manuel Murie Fernandez** mediku neurologo ospetsu eta neurorrehabilitazioan espezialista sartu zuen bere talde profesionalean, ekainean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kalte Zerebraleko laguntza lerroaren koordinazioaz arduratzeko.

Manuel Muriek **Jose Ignacio Quemada** mediku psikiatraren lekukoa hartu zuen. Quemadak, 1992an, Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen Kalte Zerebraleko Zerbitzua abian jartzea bultzatu zuen, Espainian mota horretako lehena izan zena.



OTSAILA

SOR NIEVESEN ETA SOR JULIANAREN AGURRA

Maitasunez agurtu genituen bi ahizpak; 2023an 89 urte bete zituzten, eta erretiroa hartu zuten, Komunitate Ospitalarioari urte askoko dedikazioa eta zerbitzua eskaini ondoren. **Sor Nieves** 1970ean iritsi zen Arrasatera, Palentziatik eta Leondik igaro ondoren. **Sor Juliana**, 1996an, Latinoamerikan 20 urte eman ondoren.

Aita Menniko profesionalak, pazienteek eta laguntzaileek haiek gure ospitalean egoteko zortea izan dugu, bertan egin baitute gaixoak eta familiak zaintzeko eta laguntzeko lana, berotasunez eta maitasunez.

KONPROMISOA GIZARTEAREKIN

Aita Menni Ahizpa Ospitalarioetan, gure kudeaketan txertatzen dugu gure lan, gizarte eta ingurumen ingurunean eta bizi garen komunitatearekin dugun harremanean eragin positiboa sortzeko kezka.

Horregatik, hainbat arlotan ekimenak egiten ditugu, gure erakundearen zein inguruan hobekuntzak eta onurak eragiten dituztenak.

EZAGUTZA SORTZEN ETA PARTEKATZEN

Ikerketa eta berrikuntza proiektuetan parte hartzea eta lantzen ditugun arloetan ezagutza sortzea eta ezagutza hori zabaltzea Aita Menniren eguneroko jardueraren parte dira.

IKERKETA ETA BERRIKUNTZA

Aita Mennin ikerketa proiektuak garatzen ditugu arlo soziosanitarioaren barruan, hainbat erakunde eta unibertsitate publiko zein pribatuekin lankidetzan, baita Maria Angustias Gimenez Ikerketa eta Garapenerako Fundazioak (FIDMAG) garatzen duen jardueraren esparruan ere; fundazioak Ahizpa Ospitalarioen sarea osatzen duten zentron ikerketa jarduerak gidatzen, bultzatzen eta koordinatzen ditu.

Berrikuntzaren aldeko gure apustu erabakigarriaren ondorioz, etengabe gaude harremanetan gure jarduera eremuetan aurrerapen teknologikoak gidatzen dituzten erakunde eta enpresekin, teknologia gehitzeko gure lanean laguntzeko, errehabilitazio prozesuak errazteko eta artatzen ditugun pertsonen bizi kalitatea hobetzeko.

IRAKASKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Aita Mennik hitzarmenak ditu hezkuntza erakunde askorekin, eta haietatik praktiketako ikasleak jasotzen ditu, edo eskolak eskaintzen dizkie gure erakundeko profesionalen bidez.



AKORDIOAK 15 UNIBERTSITATEREKIN, 12 ESPEZIALITATETAKO PRAKTIKAK

- Psikologia.
- Erizaintza.
- Erizaintzako Laguntzaile.
- Gizarteratze.
- Gizarte Lan.
- Logopedia.
- Fisioterapia.
- Administrazio.
- Arreta Soziosanitario.
- Terapia Okupazional.
- Giza Baliabide eta Ospitale Kudeaketako Gradua eta Graduondoa.



PRAKTIKETAKO IKASLEAK 2023AN

	ASISTENZIALAK	BESTEAK
HAM	193	4
SSAM	56	-

MARTIN CARRASCO DOKTOREAREN JARDUERA DIBULGATZAILEA

2023an, gure zuzendari mediko **Manuel Martin Carrasco** doktorea biziki aritu zen ezagutzaren dibulgatzaile gisa.

Maiatzean, hitzaldi bat eman zuen Amerikako Psikiatria Elkartearen Urteko 176. Bileran, San Frantziskon (Estatu Batuak), "Identitatea egungo psikopatologiako arazo nagusi gisa" izenburupean, eta gai hori izan zen, halaber, Aita Menni Ahizpa Ospitalarioetako profesionaleri zuzendutako saio kliniko baten ardatz nagusia.

Ekainean, Psikiatriako eta Osasun Mentaleko Espainiako Elkartearen presidentea gisa, Espainiako Psikiatriaren Liburu Zuria aurkeztu zuen Madrilan, komunikabideen eta gizartearen aurrean; espezialitatearen egungo egoera jasotzen duen eta, arreta eskaera handitzen ari delarik, osasun mentaleko profesionalen gabeziak ohartarazten duen dokumentu bat da.

Azaroan, Martin doktoreak bi aldiz bisitatu zuen Madril berrito: lehenengoan, Aita Menni Ospitaleko Egonaldi Ertaineko buru kliniko **Beatriz Noguerasekin** batera, - Egonaldi Ertain-Luzeko eta Psikogeriatrico Nahasmendu Mental Larriari buruzko I. Jardunaldietan parte hartzeko, eta egun batzuk geroago, "Bizitza kontsokratuan hauskortasunean laguntzea" jardunaldian parte hartzeko, Erlijosoen Espainiako Konferentziak antolatuta.

Zaragozan, "Martxan. Ibilbide bat depresioan barrena" topaketan parte hartu zuen, Osasun Mentalaren Aldeko Aragoiko Elkarteak antolatua, eta Sevillan hitzaldi markoa ematera gonbidatu zuten, "Bioetika eta Osasun Mentala: biztanleria ahularen erronka komunak" jardunaldian, Andaluziako Arartekoak antolatua, sektore soziosanitarioko profesionaleri, gizarte zerbitzuei, arlo juridikoari eta gaixotasun mentala duten pertsonen eskubideen aldeko elkartei zein arazo mentalak dituzten pertsoneri eta senideei beraiei zuzendua.



MARTXOA

ZAINKETA PERTSONALIZATUEI
BURUZKO FORMAZIOA EMAN DIEGU
GIPUZKOAKO EGOITZEI

Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen Adinekoen Arloko arduradun **Jose Antonio Ezquerrak** pertsonarengan oinarritutako arreta ereduari buruzko prestakuntza eman die lurralde horretako Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren menpeko egoitza eta eguneko zentroetako zuzendari eta langile asistentzialei, baita erakundeko teknikariei ere.



AZAROA

MAPFREREN GORPUTZEKO KALTEA
BALORATZEKO JARDUNALDIETAN

Aseguru konpainia, auzitegiko medikuntza, balorazio medikoa eta judikaturako 400 profesional inguruk parte hartu zuten azaroan Madrilen, Gorputzeko Kaltea Baloratzeko XV. Jardunaldietan. Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen psikiatra eta Kalte Zerebraleko Menni Sareko zuzendari **J. Ignacio Quemadak** trafiko istripu baten ondoren gaixotasun mentalen larritasuna areagotzeaz hitz egin zuen, eta biktimei konpentsazio egoki bat emateko hura nola ebaluatu behar den azaldu zuen.

MAIATZA

DROGEN KONTSUMOAREN
PREBENTZIOARI BURUZKO SAIOAK

Nerabezaroan Adikzioak Prebenitzeko Aita Menni Ospitaleko Zerbitzuak drogen kontsumoaren arriskuei eta ondorio psikiko eta organikoiei buruzko tailer teoriko-praktikoak antolatu zituen berriro. Prebentzio saio horietan, zentroko profesionalek eta pazienteek substantzia arriskutsuenez eta horien kontsumoak eta adikzioak dakartzan arriskuaz hitz egiten dute gazteekin.

EKAINA

MOBILIZAZIO ETA TRANSFERENTZIA
TEKNIKEI BURUZKO PRESTAKUNTZA
EMAN DUGU

Iban Arrienek, Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen Fisioterapiako arduradunak, desgaitasun neurologikoa duten pertsonen zaintzaileekin maneiu fisikorako eta mobilizazio eta transferentzietarako estrategiak partekatu zituen, Familia Zaintzailerako Elkartek Donostian antolatutako jardunaldi batean.

IRAILA

ESTRESAREN, ANTSIETATEAREN ETA
IKTUSAREN ARTEKO LOTURA AZALTZEN

Kalte Zerebralaren Zerbitzuko neuropsikologo **Naiara Mimentza** ATECE Arabak Gasteizen antolatutako Hartutako Kalte Zerebrala Prebenitzeko II. Jardunaldian parte hartu zuen. Han, estresaren, antsietatearen eta iktusaren arteko harremana azaldu zuen, eta zuzeneko arrisku faktoreak tratatzearen garrantzia jorratu zuen –hipertentsioa, tabakoaren kontsumoa edo kolesterola, adibidez–, baina baita zeharkako faktoreak kontrolatzearen garrantzia ere, hala nola antsietatea, zuzeneko faktoreak okertu baititzake.



UZTAILA

TOURRAK AITA MENNIREN IRUDIAK ZABALDU DITU MUNDU OSOAN

2023ko Frantziako Tourra Euskadin hasi zen, eta bere etapetako bigarrena, Gasteiz eta Donostia artekoa, Aita Menni Ospitalearen aurretik igaro zen.

Bi aste lehenago, begiraleak, mantentze lanetako langileak eta pazienteak muntaketa irudimentsu bat prestatzen hasi ziren, lasterketaren eta Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen logotipoa zuen bizikleta hori handi batek ongietorria emateko txirrindularien segizioari.

Instalazioa prest geratu zen kanpoko patioan, eta lasterketaren egunean, txirrindulariak igarotzean, gure pazienteak gurpil erraldoiak birarazten zituen motorra bihurtu ziren.

“Performancearen” irudimena ez zen oharkabean pasatu komunikabideentzat, proba airetik zuzenean ematen duen helikopteratik hasita, eta gure zentroaren gainean gelditu zen, lasterketako telebista seinalea jasotzen duten 190 herrialde baino gehiagori haren irudiak eskaintzeko.

EUSKAL FUTBOLAREN MITOAK GURE ERREMINISZENTZIA TAILERRETAN

José Ángel Iribar, Luis Miguel Arconada, Santi Idigoras, Andoni Goikoetxea eta **Alberto “Bixio” Gorriz** dira 2023an kirol horri lotuta San Martin, Barandiaran eta Txurdinagabari egoitzetan eta Donostiako Kalte Zerebralaren Eguneko Zentroan egin ziren erreminiszentzia tailerretan parte hartu zuten Euskal

Herriko futbolaren mitoetako batzuk. Futbolari Beteranoen Elkartearen Espainiako Federazioak antolatzen ditu tailerrak, LaLiga Fundazioaren babesarekin, eta Athleticeko jokalaria ohi **Aitziber “Tzibi” Juaristik** eta Real Sociedadeko **Michel Loinazek** dinamizatu dituzte.

INGURUMENA


Aita Mennik bat egiten du bere inguruko konpromiso sozial eta instituzionalarekin, ingurune naturalaren defentsan eta klima aldaketaren aurkako borrokan, eta bere ingurumen kudeaketa hiru ardatz garrantzitsutan antolatzen du: hondakinen kudeaketa, emisioen kontrola eta kontsumoen optimizazioa. **Gaur egun, ISO 14001 Ingurumen kudeaketako ziurtagiria lortzeko prozesuan dago.**



MUSAKOLA, EFIZIENTZIA ENERGETIKOAREN EREDUA

Arrasateko diziplina anitzeko zentro berriak efizientzia energetiko handia lortzeko neurriak eta ekipamenduak ditu.

- Fatxada aireztatua instalatuta. Isolamendu termikoa hobetuta, eta horrekin klimatizazioan kontsumoa murriztea lortzen da, bai berokuntzan, bai hozkuntzan. Hori, zeharka, CO₂-aren murrizketan ikusten da.
- Energia elektrikoa sortzeko eguzki plakak: tokiko eta hurbileko sorkuntza, energia iturri berriztagarriak erabiliz.
- Klimatizazioa: espazioen erregulazio termostatikoa. Erosotasuna hobetzea eta kontsumo energetikoak hobetzea.
- Ilunabarreko sentsoreak: argia barrura sartzen den detektatu eta argien intentsitatea erregulatzen dute.
- LED argiztapena eta mugimenduaren detektagailuak: kontsumo elektrikoa murrizten da, pertsonen presentzia dagoenean argiztapena ziurtatzen den bitartean.
- Txorrotako aireztargailuak: txorrotako ahoan airea urarekin nahastean, ur kontsumoa %50eraino murriztea lortzen da.



Musakola Zentroko energia-ekoizpenaren eta kontsumoaren datu-panela.

HONDAKINEN KUDEAKETA

Material hauek kudeatzen dira:

- **Hiri hondakinen antzeko hondakin sanitarioak** (materia organikoa, plastikozko ontzi hutsak, kartoia/ papera, kristala/beira, pilak, metalezkoak, egurra eta arropa).
- **Hondakin sanitarioak, bioarriskutsuak edo hondakin sanitario bereziak** (sekrezioak, jariakin biologikoak, jariakin horiekin kontaktuan egon diren materialak...).
- **Zitotoxikoak** (iraungitako medikamentuak, fluoresenteak, termometroak, orratzak, tonerrak, lubrifikatzaileak...).
- Aita Menni Ospitalean, inausketako eta lorezaintzako hondakinen **konpostajea**, pazienteek egina.

EMISIOEN KONTROLA

- **Autoa partekatzeko** ekimena.
- **Tokiko lehengaien hornitzaileak**, elikagaietarako (0km). Konpromisoa Ausolanekin.
- Garbiketarako produktuak, **Ekolabel ziurtagiriarekin**, eta ontzi birziklagarriak.
- **Bizikleta eta auto elektrikoetarako 3 kargagailuak** instalatuta.

KONTSUMOAK	2020	2021	2022	Bar. %
Ura	92.000 m ³	84.835 m ³	83.079 m ³	65.854 m ³ %11,49
Gasa	7.110.849 kW/h	7.784.169 kW/h	6.769.186 kW/h	6.411.479 kW/h -%5,28
Elektrizitatea	3.569.677 kW/h	3.687.409 kW/h	3.749.874 kW/h	3.686.906 kW/h -%1,68

UNIFORMEAK KUDEATZEKO MAKINAK

Aita Menni Ospitaleko langileen uniformeak makina bidez jaso eta entregatzeak garbitu beharreko bolumena murriztea ahalbidetzen du, eta, ondorioz, energia, ura eta detergentea aurreztea:

2023KO AURREZTEA 9.000 KG.

Aurten, izara, ohe-estalki eta kuxinen plastikoen ordez, zorro garbigarriak jarri dira.

ELKARTASUNA

Aita Mennik lantalde bat du elkartasun proiektuetan parte hartzen duena, gure zentroetan sentsibilizazio jarduerak antolatzen dituena eta elkarlanean aritzen dena hainbat GKEren kanpainen.

OTSAILA / IRAILA

TURKIA, SIRIA, MAROKO ETA LIBIARAKO LAGUNTZA

Otsailaren 6an, 7,8 eta 7,5 magnitudeko bi lurrikarak Turkiaren eta Siriaren arteko mugako eremua astindu zuten, eta, guztira, 59.000 heriotza baino gehiago eragin zituzten bi herrialdeetan.

Lau egun geroago, Zaporeak GKEarekin lankidetzan, Aita Menni Ahizpa Ospitalarioek herrialde horietarako elikagaiak eta dohaintza ekonomikoak jasotzeko kanpaina bat jarri zuten abian Euskadin.

Guztira, 1.500 kilo elikagai eta 2.000 euro bildu ziren, eta GKEak tokian bertan egin zuen lanean lagundu zuten, kaltetutako pertsonei janaria emanez.

Hilabete batzuk geroago, irailaren 8an, 6,8 magnitudeko beste lurrikara gogor batek Marokoko eskualde bat astindu zuen Marrakexeko hegoaldean, eta 2.600 lagun hil ziren. Libian, ekaitz gogor batek eragindako



uholdeak 11.000 heriotza baino gehiago eragin zituen, eta Derna hiria suntsitu nuen.

Orduko horretan, Ahizpa Ospitalarioek dohaintzak biltzeko kanpaina bat abiarazi zuten, Caritasekin lankidetzan, eta 6.000 € baino gehiago bildu ziren.

BOLUNTARIOTZA

Gure sorreratik bertatik, Erakundearen leku nabarmena eman diogu boluntariotzari. Gure zentroetan ehun lagun inguru aritu ohi dira boluntario lanetan.

- Laguntza pertsonalizatuak zentroen barruan eta kanpoan.
- Aisialdiko jarduerak zentroetan.
- Gestioak egiteko laguntza.
- Auzolandegietan parte hartzea.
- Integrazio komunitarioko jarduerak.
- Tailerrak.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Gaixotasun mentala duten emakumeak errehabilitatzeko, **Aita Mennik We Are Like You** programa garatzen du Monrovia (Liberia), Saint Benedict Menni Health Centreekin elkarlanean; Afrikako herrialdean dugun zentro adiskidea da. Zentroaren inguruneko haurrak babestea ere kudeatzen du.



ARTATUTAKO EMAKUMEAK

197



BABESEAN HARTUTAKO HAURRAK

23 We Are Like Youren bidez

3 Benito Menni Fundazioaren bidez

AKORDIOA MUGARIK GABEKO MEDIKUEKIN ETA SOR INCARENTZAKO ERREKONOZIMENDUA

Aita Mennik gaixotasun mentala duten emakumeak artatzeko Monrovia (Liberia) abian jarri zuen Osasun Mentaleko Unitateak bere lanarekin jarraitu zuen 2023an zehar, lankidetzak hitzarmen berri bat gehituz, oraingo honetan Mugarik Gabeko Medikuekin.

GKEak gaixotasun mentalak eta substantzien kontsumoari lotutako nahasmenduak dituzten herrialde osoko emakumeak bideratuko dituzte gure zentrori.


Hain zuzen ere, iaz, gure langileek drogen abusuak eragindako arazoak dituzten pertsonen tratamenduari buruzko prestakuntza espezifikoko ikastaroetan parte hartu zuten.



2023ak, gainera, albiste handi bat ekarri zuen zentrori: "Bizitza profesional oso baten saria", Anesvad Fundazioak 1992tik 2022ra bitartean Monroviako Komunitatean bizi izan zen sor **Inca Gonzalez** ahizpa ospitalarioari eman ziona.

FONDOEN ERABILERA

EUR USD



EUSKARA

2014rik geroztik, **Aita Menni** Euskara Batzorde bat dauka, pazienteek, familiek eta langileek euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko. Bere lan arloak dira euskararen erabilera antolatzea, Euskara Plan Estrategikoaren bidez, laguntza ofizialak eskatuz, erakundearen euskararen erabilera bultzatuz eta euskararen erabileraren aldeko giroa sustatuz.

ABENDUA



BERDINTASUNA

Aita Menni emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin konprometituta dago lan-arloan, eta, horrez gain, desorekak desagertarazteko eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko beharrezkoa den gizarte-aldaketara bideratutako kontzientziazio-neurrien alde egiten du.

MARTXOAK 8





Ahizpa
Ospitalariak
AITA MENNI

Gesalibar, 15.
20509 ARRASATE - MONDRAGÓN
Tel. +34 943 79 44 11
Fax +34 943 79 61 61
hospital.aitamenni@hospitalarias.es
www.aita-menni.org